


GIZARTE-BONUA



ENERGIArako Pertsona kalteberentzako neurriak

www.kontsumobide.eus

-Zure Udal Gizarte
Zerbitzuek emaniko
informazioa-



Energia-hornidura zerbitzua eskuratzea ezinbestekoa da beharizanik derrigorrezkoenei erantzungo dien **bizitza duina** eduki ahal izateko.

Dagoeneko badira **neurri** batzuk pertsona kalteberen egoera larria arintzeko, horien artean dugu **gizarte-bonua**.

Zer da gizarte-bonua?

Gizarte-bonua ohiko etxebizitzaren faktura elektrikoan pertsona fisikoei egiten zaien **deskontu bat** da, araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.



Non aurkeztu behar da gizarte-bonua eskuratzeako eskabidea?

Kontsumitzaileak inprimaki normalizatua bete eta nahitaezko dokumentazioarekin batera igorri beharko dio **bere erreferentziako merkaturatzaileari**, hark izango baitu inprimakia eskuragai, bai bere webgunean bai bere bulegoetan.

Eskabidea **telefonoz**, merkaturatzailearen bulegoetara **joanez**, **faxez** edo **posta elektronikoa**ren bidez aurkez daiteke, bai eta **posta arruntaren** bidez edota bere **webgunearen** bitartez.

Nora jo behar da gizarte-bonua ukatu ezkero?

Gizarte-bonuaren aplikazioa dela-eta desadostasunik badago eta/edo merkaturatzaileak bonua ukatu ezker, titularrak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio **Kontsumobideri edota bestelako kontsumo-erakundeei**.

Onuraduenen betebeharrak:

- Bi urteko epea iragan aurretik berritze-eskabidea aurkeztea.
- Bonua ematea bideratu zuen egoera desagertu ezker, enpresari hilabeteko apean jakitera ematea.

Informazio gehiago

Urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua, kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elkatrikoaren kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen.

KONTSUMOBIDE

Teléfono: 945 06 21 40

Fax: 945 06 21 41

www.kontsumobide.eus

kontsumobide@kontsumobide.eus